

ZIKUÑAGAKO AMA ZIKLOTURISMOKO TALDEA.

1979-2004 25.URTEURRENA



Inaxio Lujanbio, Zikuñagako Ama zikloturista, bizikletaz zihoala istripuz hil zena

Hernanin betidanik izan da kirolzaletasun handia, hori ezin da ukatu, eta horren lekuko dira egiten diren hainbat eta hainbat jarduera. Giro horren baitan, txirrindularitzaren zaletasunak bere lekua izan du bai lehiaketen mailan bai zikloturismo mailan. Azken atal horretako ibilbideaz arituko gara orri hauetan, 25 urte betetzen baitira Hernaniko zikloturismo taldea sortu zela.



Txirrindulari zaletu talde batek (amateur eta profesional mailako txirrindulari izandakoak batzuk eta kirol-zaleak beste batzuk) 1979an talde gisa antolatzeko beharra ikusi eta JOCCen barruan zikloturismoari zegokion atala sortzea erabaki zuen.

Hasieratik beretik izan zuen indarra ideia hark, izan ere, ordurako herritar asko ibiltzen zen zikloturista moduan kirola egiten, eta nolabaiteko antolaketa abantailak ekartzen zituen: batetik, federatuta egoteak zenbait babes (asegurua) eta eskubide eskaintzen ditu, eta bestetik, talde bezala antolatzen diren ekintzek talde giroa sortzen dute.

Halakoetan ezinbestekoa izaten da talde bat talde bultzatzaile lanetan aritzea, eta zorionez, urte hauetan guztietan beti egon da jendea lanerako prest. Egoitza ofiziala eduki ez badu ere, *Mendate* denda izan da taldearen bilera leku eta "txutxurrutxukerien" bilgune.

Kide kopuruari dagokionez, gorabehera handiak izan dira 25 urte hauetan. Hasierako urteak izan ziren oparoenak, 150 kide izatera iritsi zelarik. Ibilbide honen erdi aldean, ordea, garai ez hain oparoak etorri ziren, eta 20 bat lagun baino ez ziren biltzen. Baina, azken urte hauetan kopuruak nolabaiteko egonkortasuna lortu du: 70 kide inguru daude gaur egun, eta giroak edo joerak horrela jarraituko dela adierazten digute.

Era askotako irteeratan parte hartzen dute taldeko kideek, norberaren zaletasun edo prestakuntzaren arabera:

- Klubak antolatzen dituenak, martxoan hasi eta urria arte.

- Gipuzkoako federazioko Challenge-a.

- Bestelakoak: Quebrantahuesos, Ruta del vino, Loroño, Marmotte etab.

Irteera horien aurrean kide guztiek ez dute prestakuntza maila berdina izaten, eta ondorioz, zikloturisten artean, azpimultzoak sortu izan ohi dira entrenatzeko garaian, eta baita irteeretan ere; horrenbestez, talde bakoitzak bere erritmoa, kilometro kopurua eta abar izaten ditu jarritako helburuak lortzeko.

Aurretik esan bezala kirola egiteaz gain lagun arteko giroa bultzatzea da taldearen helburu nagusietako bat. Hori dela eta, urteko azken irteera "ofizialak" bukatu ondoren, azaro inguruan, afaria ospatzen da; bertan, sari banaketa izaten da. Sari horiek zikloturistek egin dituzten proben arabera banatzen dira.

Amaitzeko, oraindik animatu ez diren txirrindulariei esan nahi diegu Zikuñagako Ama taldeak ateak zabalik dituela nahi duenarentzat, baita emakumeentzat ere, txirrindularitzari diogun zaletasunak batzen baikaitu.



Ruta del Vino proban 80. hamarkadaren hasieran